

Aldi baterako enplegua egonkortzeko eta finkatzeko ezohiko prozesuari dagozkion lanpostu hutsak merezimendu-lehiaketa bidez betetzeko deialdia, Enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurriei buruzko abenduaren 28ko 20/2021 Legean xedatutakoaren arabera. Kontratazio proposamena.

Aldi baterako enplegua egonkortzeko eta finkatzeko ezohiko prozesuari dagozkion lanpostu hutsak merezimendu-lehiaketa bidez betetzeko deialdiaren 10. oinarrian xedatutakoa betez, eta Enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko presako neurriei buruzko abenduaren 28ko 20/2021 Legean xedatutakoaren arabera (2022ko azaroaren 14ko Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, 225. zenbakian, ohiz kanpo), deialdi horretako epaimahai kalifikatzaileak kontratazio-proposamena aurkeztu du, baldintzak betez puntuazio handienarekin onartzen denaren eta deitutako plaza-kopuruan lekua duenaren alde.

1. Mendialdea Mankomunitatean peoi-gidari lanpostua kontratatzeko proposamena onartzen da, honako hauen alde:

ANDONI ALDALUR ZULAIKA

2. Deialdiaren 10.2 oinarrian xedatutakoaren arabera, proposamen hau Mendialdea Mankomunitatearen web-orrian argitaratu eta hurrengo 10 egun balioduneko epean, oinarri horretan eskatutako dokumentazioa aurkeztu beharko du proposatutako pertsonak, Mendialdea Mankomunitateko Erregistroan:

a) Nortasun agiri nazionalaren kopia, edo izangaiaren nazionalitatea eta nortasuna frogatzen dituen beste agiri baliokideren batena.

b) Osasun txosten ofiziala, karguaren eginkizunak betetzea eragotziko liokeen akats fisiko nahiz psikiko edo eritasunik ez duela erakusten duena.

c) Zinpeko deklarazioa edo deklarazio solemnea, adierazten duena ez dagoela ezgaitua edo gabetua eginkizun publikoetan aritzeko eta ez dela bereizia izan administrazio publikoren baten zerbitzutik.

d) Zin edo promesa, adierazten duena Nafarroako Foru Araubidea errespetatuko duela, Konstituzioari eta legeei men egiten diela eta karguari dagozkion eginkizunak zuzen beteko dituela.

3. Argitara bedi hori guztia Mendialdea Mankomunitatearen webgunean, dagozkion ondorioetarako.

Leitza, 2023ko otsailaren 2a. – Mendialdea Mankomunitateko lehendakaria, Unai Miranda Berroeta